



8. AKTA

2004ko uztailearen 22an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila lauko uztailearen hogeitabian.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 10:30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldiko akta 7. 2004ko ekainaren 17koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 8/04 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.

Pasaiako Gobernu Batzarrak erabaki du ontzat ematea 7. zka. duen kontu eta fakturen zerrenda, **BERREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (237.329,45 euro).**



3.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2004ko ekainaren 30ean aurkeztutako proposamena, EJ 1/04, proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoa aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat 1/04 proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARREN.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

4.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza ekonomikoak, Udalaren agindupekoak. 04/3 Proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko uztailaren 6an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 21.762,25 eurokoak.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-857/04 Baimenduaren kontura.

5.- Dirulaguntzak Uraren, Estolderiaren eta Zaborren tasak ordaintzeko.

Gizarte Ekintza sailetik bideratu dira Uraren, Estolderiaren eta Zaborren tasak ordaintzeko dirulaguntza-eskaerak.

Zerga-bilketa eta Errenta sailak eskaera guztiak dagokion Normaren arabera aztertu eta gero.

2004ko uztailaren 12an Gizarte-Ekintzako Zinegotzi-Delegatuaren proposamenaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Baiestea dirulaguntza-eskaera Ur, Estolda eta Zaborren Tasak ordaintzeko, behar bezala bideraturiko espedientean zerrendatzen diren onuradunena, guztira 4.974,21 euro jotzen dutenak.



BIGARRENA.- Ezestea dirulaguntza-eskaera Ur, Estolda eta Zaborren Tasak ordaintzeko, behar bezala bideraturiko espedientean zerrendatzen diren onuradunena, eta bertan jasotzen diren arrazoiak direla medio.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 04.480.313.90.01 partidaren kargura eta A-902/04 Baimenduaren kargura.

6.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HAMAR MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO (10.663 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

7.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.



Zenbatekoa: HOGEI MILA EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (20.158,79 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

8.- "P. Donibaneko Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasearen" obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: "P. Donibaneko Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasearen" obraren 1. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BI MILA EHUN ETA HOGETA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (2.133,41 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

9.- "P. Donibaneko Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasearen" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "P. Donibaneko Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasearen" obraren 2. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGETA HIRU MILA BEDERATZI EHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (23.995,79 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

10.- "Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren" obraren 1. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: “Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 1. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA LAU MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (44.438,31 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

11.- “Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: “Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 1. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA BI ZENTIMO (80.892,82 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

12.- "Ulia Etorbidea, 13 bis, esk. eskailera - 2. ezk.etxebizitzaren eraberritzearen" obraren 1. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: "Ulia Etorbidea, 13 bis, esk. eskailera - 2. ezk.etxebizitzaren eraberritzearen" obraren 1. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Joxe Mitxelena Zubizarreta

ARBELAIZ NUÑEZ, C.B. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HIRU MILA ETA BERREHUN EURO (23.200 euro).

Indarreango udal aurrekontuko 620/04 Disposamenduaren kargura.

13.- Oarsoaldeko Euskara Batzordeak 2004rako proiektua onartzea eta gastuak onartzea.

2004ko ekainaren 18ko Euskarako Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariaren proposamenez, Alkate andreak, Tokiko Gobernu Batzarrak aurrez deliberaturik, eta bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 2004ko Oarsoaldeko Euskara Batzordeak proposaturiko proiektua onartzea eta baita gastuaren %25 ere Pasaiako Udalari dagokiona berari aurre egiteko, 35.896,56 euroko kantitatez.

BIGARREN.- Aipatu kantitatea indarreango udal aurrekontuko A-881/04 Baimenduaren kargura egingo da.

HIRUGARREN.- Aipatu kantitatea Oarsoaldeko Euskararen Batzordeak KUTXAN irekia duen kontura transferituko da, 2101.0060.00.0010.693141 zka. duen k/k-ra.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

14.- Obra-lizentzia: Euskadi Etorbidea, 37.

JOSE MANUEL ABAL PORTELA jaunak (INSTALACIONES FONTABAL) Euskadi Etorbidea, 37. Zk.ko eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.- JOSE MANUEL PORTELA jaunari (INSTALACIONES FONTABAL) eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko du Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak kale aldera ematen duten balkoietan, terrazetan edota fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzentzeko eta udalak ezarritako arautegiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua arabera, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoetenteak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.



HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

15.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

Marivi Arrillaga Isasa andreak egindakoa ondare-erreklamazioa.

Ikusirik MARIVI ARRILLAGA ISASA andreak aurkeztutako erreklamazioa Udalari eskatuz 2004ko ekainaren 27an San Pedroko jaietan Arraunlari kaleko 4 zenbakiaren parean bere autoaren sabaian eta kapoan gautarren batek eragindako kalteak konpon ditzan.

Ikusirik ez dela batere alegatzen aipatu kalteak Udalak burututako jarduera zehatzen batek eragindako kalteak direla eta ez dagoela aztarnarik nola gertatu diren gauzak.

Erreklamatzailaren obligazioa izanik zerbitzuaren funtzionamendu normal edo anormalaren eta kalteen arteko kausalitatea frogatzea eta aipatu frogarik ez dagoenez, Toki Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Azaldutako arrazoiak direla eta, Marivi Arrillaga Isasa andreak aurkeztu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

- Gaizerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sartzea aurrez berretsi ondoren, honako akordio hauek hartu dituzte:

16.- Obra lizentzia eskaera. Platako Farola – Ulia Mendia.

2004ko apirilaren 20an Udaltzaingoak lizentzia gabeko obra-kontrol baten parte egin zuen, zementuzko plataforma bat eraikitzeari buruzkoa, ustez bere jabetzako lursailean.

2004ko apirilaren 29an obra-lizentzia eskatu zuen.

Espedientea aztertuta, honako argibideak ematen ditut:

- Eskatutako obrak egin nahi diren lekua EZ URBANIZAGARRI gisa dago sailkatua, G-6 Ekipamendu Sozio-kultural eta Jolas Ekipamendurako Eremua.
- Halaber, mugakide da Platako Farolarako Bidearekin, Pasaiako Portuko Zerbitzu Eremuan sartua, Jabari Publiko Itsas-lehorrekoa.

- Espedientearen arabera, ontzi-zubia neguan ardiak gordetzeko erabiliko da.
- Aukeratutako lekua paisaia aldetik balio handikoa da, portu-ahotik ikusten da eta Donibanetik ere bai.
- Bere kalifikazioa da Ekipamendu Sozio-kultural eta Jolas Ekipamendurako Eremua.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Jose Fco. Arrese-Igor-ek eskatutako lizentzia, ontzi-zubi bat instalatzeko egindako hormigoi-plataforma legezkatzearena, eremu horretan erabilera hori ez dagoelako baimendua eta Portuko zerbitzuko eremuari atxikia dagoen bidearekin mugakide delako.

BIGARRENA.- Hirigintzako legezkatasuna berrezartzeko espedienteari ekitea lizentziarik gabe egindako obrak hilabeteko epean eraisteko aginduz, eta behin betiko galaraziz bere erabilera.

HIRUGARRENA.- Baldin eta eraisketa aipatutako epean egingo ez balitz, eraisketa subsidiarioki egingo da, interesdunaren kontura, eta horretarako berehala eskatuko dira dagozkion aurrekontuak.

LAUGARRENA.- Udaletxean dauden aurrekariak kontuan izanik, egokia dirudi obrak lizentzia gabe egiteagatik zehapen-espedienteari ekitea LLTB 76ko 225. art. eta ondokoetan aurreikusten den bezala.

BOSGARRENA.- Akordio hau udaltzaingoari jakinaraztea aurrera eraman dezaten.

SEIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

17.- Ikastetxeei subentzioa. 2004ko 1. seihilekoa

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2004ko uztailaren 19an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2004ko lehenengo seihileko subentzioa banatzea onzat ematea:

- KARMENGO AMA H.I.....	35.451,93 Euro
- KARMENGO AMA H.I. GURASO ELKARTEA.....	283,71 Euro
- PASAIA-LEZO LIZEOA.....	16.461,20 Euro

GUZTIRA.....52.196,84 Euro

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin..

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidaren eta A-914/04 Baimenduaren kargura.

18.- 2004 Kultur programetarako dirulaguntzak.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2004ko uztailaren 19an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Jarraian aipatzen diren kultur elkarteei 2004. urtean zehar egingo diren kultur programentzat dagozkien dirulaguntzak ematea.

Urteko diru-laguntzak/ subv. anuales		
Elkartea / asociación	Diru-laguntza / subvn.	%75
Alkartasuna Dantza taldea	3.819,94 €.	2.864,95 €.
Bonantza auzo elkartea	1.273,31 €.	954,98 €.
C.A.S. Azkuene	1.736.,33 €.	1.302,25 €.
Fato cultural "Daniel Castelao	1.344,00 €.	1.008,00 €.
Grupo de expresión	1.678,46 €.	1.258,84 €.
Gure Kalparra bizilag. elk.	1.099,68 €.	824,76 €.
Kexaldi	1.562,70 €.	1.172,03 €.
Lagun Artea	862,34 €.	646,76 €.
Trintxer Kulturala	4.051,45 €.	3.038,59 €.
Guztira	17.428,21 €.	13.071,16 €.

Diru-laguntza bereziak / Subvenciones especiales			
Elkartea / asociación	Ekintza / activ.	Diru-lag. / subv.	%75

Alkartasuna Dantza taldea	Aurreku Txapelketa	3.500,00 €.	2.625,00 €.
Trintxer Kulturala	Laburmetrai erak. / Muestra cortos	5.500,00 €.	4.125,00 €.
Guztira		9.000 €.	6.750,00 €.

Ezohiko dirulaguntzak / subvenciones extraordinarias			
Elkartea / asociación	Ekintza / activ.	Diru-lag. / subv.	%75
Albaola elkarte	Gipuzkoa itsastarra	1.500,00 €.	1.125,00 €.
Alkartasuna Dantza taldea	Jaietako pregoia / pregón fiestas	450,00 €.	337,50 €.
Trintxer abesbatza	10. urteurrena / 10º aniversario	750,00 €.	562,50 €.
Guztira		2.700,00 €.	2.025,00 €.

Kultur egitarauentzako dirulaguntzak emateko oinarrien 11. puntuaren arauera, dirulaguntzak bi alditan ordainduko dira:

- %75 onartu ondoren eta akordioaren jakinarazpenarekin batera.
- Gainerako %25 a. dirulaguntza justifikatu ondoren.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05.481.451.10.01 partidaren eta A-915/04 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiokeen errekursoekin..

19. Minusbaliatuentzako aparkaleku-erreserben lizentziak

Hirigintza Saileko 2004ko ekainaren 8ko txostena eta Udaltzaingoaren uztailaren 5koa aztertuta, biak ere minusbaliatuentzako aparkaleku-erreserben lizentzien tramitazioari buruzkoak, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezartzea aurrerantzean Udaltzaingoaren Saila izan dadila minusbaliatuentzako aparkaleku-erreserben lizentzien espedienteak bideratzeko ardura izango duena.

BIGARRENA.- Udaltzaingoaren Sailari agintzea egun aparkaleku-erreserben lizentzien emakidak nola dauden berriker dezala eta emandako lizentziak egunera ditzala (heriotza-bajak, ibilgailu-bajak, egoera-aldaketa...). Oraindik arrazoi gehiagorekin, kontuan izanik minusbaliatuei aparkaleku-



erreserbak emateko arauen 6. art.aren arabera emakidak hiru urtera berri egin behar direla eta kontzesioa lortzeko bete behar diren baldintzetakoren bat galtzen bada iraungi egin behar direla.

HIRUGARRENA.- Udaltzaingoaren Sailari agintzea arautegia eta bere aplikazioa zorrotz azter ditzala, arreta berezia jarritz erreserben erabilera iruzurrezkoan, egokiak diren aldaketa proposamenak eginez eta 5. art.an aurreikusten den baldintza beteaz.

LAUGARRENA.- Udaltzaingo, Hirigintza eta Gizarte Zerbitzuen Sailei honen berri ematea, azken honi eskatuz lizentzien baldintzei buruz baliozko gerta daitekeen informazio guztia eman dezaten.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 11:30etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.